

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Marixabel Ugarteburu Arrillaga

*Eibar,
Gipuzkoa
(1955)*

Aurkibidea



Biografia



Eibarko Pagaegi kaleko "maternidadean" (amaetxean) jaio zen Marixabel 1955ean. Mandiola bailarako Mandiolaazpikoa baserrikoa da eta bertan bizi izan da beti. Santa Kurutzeko eskolan ikasi zuen umetan eta gero Eibarko Komertzio Eskolara joan zen. Bi seme ditu. Santa Kurutzeko ermitari oso lotuta dago. Egun, jaiak antolatzen laguntzen ibiltzen da, nahiz eta ardura gehiena bailarako gazteek duten. Santa Kurutzeko ermitaren inguruko kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Zintak

EIB-698

- **Proiektua:** Eibarko ermitak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti - Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2020-09-22
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Santa Kurutz ermita, auzotarren artean oso maitatua

- **Erref:** EIB-698/002
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:00:56. **Bukatu:** 00:02:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

Mandiolaazpikoa baserrian bizi da. Santa Kurutz ermita auzotarren artean oso estimatua da. Marixabelek beretzat ermita zergatik den berezia azaltzen digu: umetako oroitzapenak, eskola, erromeriak...

2. Mandiola bailara

- **Erref:** EIB-698/003
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:02:25. **Bukatu:** 00:03:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Mandiola bailarako baserriak. Auzo handia da. Mugak.

3. Santa Kurutz ermitaren historia; berriztapenak

- **Erref:** EIB-698/004
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:03:23. **Bukatu:** 00:05:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Santa Kurutz ermita barrutik: gurutze handi bat, San Jose txiki bat eta Ama Birjinaren irudia. 1862. urtetik aurrera azaltzen da dokumentuetan. Mandiolaazpikoa baserriko arbaso batek lur-saila eman zuen ermita egiteko. Orain dela urte batzuk, Udalak inguruko pinudiak erosi zizkieten eta bertan parke bat egin zuten. Gerran frontea bertan egon zen. Ermita hondatuta geratu zen, baina bi urtera konpondu zen, berriztapenak eginez.</p>

4. Santa Kurutz ermita, Gorosta eta Mandiola bailaretako auzotarrena

- **Erref:** EIB-698/005
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:05:51. **Bukatu:** 00:07:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Santa Kurutz ermita, Gorosta eta Mandiola bailaretako auzotarrena da, nahiz eta jabea eliza izan. Urtero, ermitaren ardura baserri batek hartzen du.</p>

5. Santa Kurutzeko jaiak I: noiz ospatzen diren

- **Erref:** EIB-698/006
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:07:52. **Bukatu:** 00:09:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

<p>Santa Kurutz ermitaren inguruko jaiak eta elizkizunek oinordetza auzoko gazteengan daukate. Jaiak maiatzaren 3an eta hurrengo igandean ospatzen dira. Irailaren 14an ere meza egoten da. Maiatzekoak jai handiak dira.</p>

6. Santa Kurutzeko jaiak II: egitaraua

- **Erref:** EIB-698/007
- **Iraupena:** 0:04:59. **Hasi:** 00:09:57. **Bukatu:** 00:14:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Gazte eta helduez osatutako jai-batzorde bat dago auzoan. Hiru egunetan zehar, auzotarren arteko herri-kirolak, bertso-afaria, bazkaria... egoten dira. Kezka Dantza Taldea urtero igotzen da sokadantza dantzatzera. Jende asko biltzen da jai hauetan.</p>

7. Santa Kurutzeko parkea

- **Erref:** EIB-698/009
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:15:28. **Bukatu:** 00:16:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Santa Kurutz ermitaren inguruko parkea nolakoa den. Bertatik Udalaitez, Egoarbitza edota Anboto mendiak ikus daitezke. Oso leku lasaia da.

8. Santa Kurutzeko harrian dagoen bertsoa

- **Erref:** EIB-698/010
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:16:17. **Bukatu:** 00:18:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

<p>Santa Kurutz ermitaren kanpoaldean monolito bat dago eta haren gainean bertso bat grabatua duen harri bat. Lehen omenaldiak egiten ziren. Juan Mari Narbaizak idatzitako bertsoa irakurtzen du.</p>

9. Santa Kurutzeko jaietako musikariak

- **Erref:** EIB-698/011
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:18:34. **Bukatu:** 00:20:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Aspaldi, Santa Kurutzeko erromeriak eskola inguruan eta Nebera baserrian egiten ziren. Marixabelek erromeriak Santa Kurutzen bertan, Ixuan eta Usartzan ezagutu ditu. Gaur egun, auzoko musikariak eta trikitilariak joaten dira.</p>

10. Santa Kurutzeko jai-batzordea

- **Erref:** EIB-698/012
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:20:20. **Bukatu:** 00:21:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Santa Kurutzeko jaiak antolatzeko, auzoko gazteez eta helduez osatutako jai-batzorde bat dago. Lan ezberdinak daude: Udalari baimenak eskatu, herri-probetarako entrenatu, txorizoa eta salda prestatu, ermita garbitu, loreak ipini...</p>

11. Santa Kurutz ermitako kanpaia

- **Erref:** EIB-698/013
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:21:35. **Bukatu:** 00:24:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

<p>Santa Kurutzeko ermitan, Aste Santua baino lehen gogo-jardunak egiten ziren. Lehen, hil-kanpaiak jotzen ziren, auzoko norbait hiltzen zenean. Maiordomoaren funtzioetako bat izaten zen. Jaietan ere kanpaia jotzen da, baina modu alaian. Kanpaia nolakoa den azaltzen digu.</p>

12. Santa Kurutzeko elizkizunak, euskaraz

- **Erref:** EIB-698/014
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:24:10. **Bukatu:** 00:25:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

<p>Marixabelek Santa Kurutz ermitako elizkizunak beti euskaraz ezagutu ditu. Maiatzeko jaietan jende asko joaten da mezetara. Iraileko mezan, auzokoak bakarrik. Jaietara inguruko herrietako jendea ere joaten da (Elgoibar, Markina...)</p>

13. Santa Kurutzeko eskola; irakasleak

- **Erref:** EIB-698/017
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:27:06. **Bukatu:** 00:29:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Santa Kurutzeko eskola 70. hamarkada inguruan itxi zen eta guztiz suntsituta dago. Eskolako irakasleak estatu guztitik joaten ziren eta baserrietan lo egiten zuten. Euskaraz egiteagatik asko zigortzen zituzten. Marixabeli eta auzotarrei pena handia ematen die eskolaren gaur egungo egoera nolakoa den ikusteak. Bolatokia eta frontoia zeuzkan.</p>

14. Gerra garaian, frontea Santa Kurutzen

- **Erref:** EIB-698/018
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:29:50. **Bukatu:** 00:30:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Gerra Zibilean, frontea egon zen Santa Kurutzen. Aztarnak non aurkitu daitezkeen azaltzen du Marixabelek. Ermita suntsituta gelditu zen.

15. Ezkontzak Santa Kurutzeko ermitan

- **Erref:** EIB-698/020
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:31:40. **Bukatu:** 00:33:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

Auzotarrentzat Santa Kurutzeko ermitak balio sentimental handia dauka. Ezkontzak ospatzen dira bertan. Behin euskal ezkontza bat ospatu zen. Nolakoa izan zen azaltzen du. Egun handia eta polita.

16. Lapurretak Santa Kurutz ermitan

- **Erref:** EIB-698/022
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:34:18. **Bukatu:** 00:36:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Santa Kurutzeko ermitak ur-bedeinkatu ontzia eta sakristia txiki bat ditu. Garai batean balio handiko eserleku luzeak eta aitorlekua zeuden, baina lapurtu egin zituzten. Eserlekuak orain sinpleagoak dira. Aldarea marmolezkoa da. Elizkizunetan, emakumeak eta gizonak beti elkarrekin egon dira eserita.</p>
<p>

17. Santa Kurutz eskolan, bihurrikeria asko

- **Erref:** EIB-698/023
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:36:38. **Bukatu:** 00:38:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Santa Kurutzeko eskolan neskak eta mutilak beti elkarrekin zeuden, bai gelan baita jolasetan ere (pilotan, "harria botatzen", sokasalto, ezkutaketetan...). Txabolak egiten zituzten eta nahiko bihurriak ziren.</p>

18. Aldaketa handia Santa Kurutzetik Komertzio Eskolara

- **Erref:** EIB-698/025
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:39:18. **Bukatu:** 00:40:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Euskaraz egiteagatik zigortu egiten zituzten Santa Kurutzeko eskolan. Amorrua eta ezintasun handia sentitzen zuten. 6 urtetik 13 urtera arte ikasi zuen han eta gero Eibarren jarraitu zituen ikasketak, Komertzio Eskolan ("Academia Comercial"). Aldaketa handia izan zen. Mendian libre sentitzen zen.

19. Santa Kurutzeko ermitan, beti abesten da "Arrateko Ama"

- **Erref:** EIB-698/028
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:43:30. **Bukatu:** 00:44:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Santa Kurutzeko ermitara mantelinarekin eta meza-liburuarekin joaten ziren. Elizako kanta abesten dituzte gaur egun ere. "Arrateko Ama" kanta beti abesten da.

20. Santa Kurutz ermitako maiordomoak

- **Erref:** EIB-698/031
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:47:30. **Bukatu:** 00:48:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Santa Kurutzeko ermitaren maiordomoaren kargua urtero aldatzen da eta zazpi baserrik hartzen dute parte. Noizean behin ermita eta inguruak gainbegiratzen ditu eta meza edo jaiak egongo direnean, ermita garbitu eta atontzen dute. Ermitaren giltzaren ardura ere, etxezainak dauka.</p>

21. Santa Kurutz ermitako abadeak

- **Erref:** EIB-698/033
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:49:46. **Bukatu:** 00:52:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>On Pedro Gorostidik, Arrateko abade izan zenak, urte askoan eman zuen meza Santa Kurutzeko ermitan. Hark ezin zuenean, karmeldarrak ere ezagutu izan ditu. Gaur egun, Xabier Zubizarreta Eibarko abadeak ematen du meza, edo, haren partez, Jose Ramon apaiz laikoak ere bai. Garai batean, abadeei ordaindu egiten zien urte horretan maiordomo funtzioa zuen baserriak. Gaur egun ez. Atabakan jasotako dirua ermitaren konponketa edo beharretarako gordetzen da.</p>

22. Santa Kurutzeko maiordomoak gordetzen ditu elizkizunetarako elementuak

- **Erref:** EIB-698/034
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:52:15. **Bukatu:** 00:53:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Santa Kurutzeko urteko maiordomoak bere baserrian gordetzen ditu elizkizunetarako eta jaietarako erabiltzen diren materialak (argimutilla, aldarearen mahai-zapia...). Eibarko Udalak mahaia, eserlekuak, suak, butano-botilak... uzten ditu.

23. Santa Kurutzen, hildako auzotarrei omenaldia

- **Erref:** EIB-698/036
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:53:54. **Bukatu:** 00:54:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Santa Kurutzeko maiatzeko jaietan, urtean zehar hil diren auzotarren izenak irakurtzen dira, omenaldi gisa.</p>

24. Santa Kurutzeko ermitan, ezkontzak bai, baina besterik ez

- **Erref:** EIB-698/039
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:56:09. **Bukatu:** 00:58:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Santa Kurutzen inoiz ez da lurperatzerik edo hileta-elizkizunik ("enterrarixua") egon, baina norbait hiltzen zenean, bederatziurrena errezatzen zen bertan. Bataiorik eta jaunartzerik ere ez da ospatzen. Ezkontzak bakarrik.

25. Santa Kurutzeko eskolako irakasleentzat aldaketa handia

- **Erref:** EIB-698/040
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:58:42. **Bukatu:** 01:00:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Mandiolaazpikoa baserritik Santa Kurutzera 20 minutuan heltzen ziren, eguraldiaren arabera. Eguerdian baserrira bueltatzen ziren bazkaltzera. Irakasleek eskolan zegoen sukaldean bazkaltzen zuten. Irakasleentzat oso gogorra zen Santa Kurutzen lan egitea, gehienak hirietakoak ziren eta. Lantoki hark puntuak ematen zizkien gerora.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-12

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com